Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 24a, ostirala — 245 — Viernes, a 24 de diciembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

*Beterri-Buruntza Mankomunitateko Estatutoak*

Ándoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerrietako Beterri Buruntzako Mankomunitatea» osatzen duten udaletako osoko bilkurek behin betiko onartu dituzte haren estatutu arautzaileak. eta testu osoa argitaratzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko Entitateak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauko 6.1 f) artikuluan aurreikusitakoren arabera, testu osoa argitaratzen da.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Andoain, 2021eko abenduaren 3a.—M.ª José Izagirre Iturzaeta, Batzorde Sustatzailearen lehendakaria. (7864)

*Beterriburuntza Mankomunitatea Estatutuak.*

Aurkibidea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Eraketa, izena eta egoitza.

2. artikulua. Izaera juridikoa.

3. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

4. artikulua. Mankomunitatearen indarraldia.

II. kapitulua. Xedea.

5. artikulua. Mankomunitatearen xedea.

III. kapitulua. Mankomunitateko Gobernuorganoak.

6. artikulua. Egitura organikoa.

I. atala. Batzar Nagusia.

7. artikulua. Batzar Nagusia.

8. artikulua. Batzar Nagusia eratzea eta berritzea.

9. artikulua. Batzar Nagusiaren bilkurak.

10. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.

II. atala Gobernu Batzordea.

11. artikulua. Gobernu Batzordea. Kideak eta ordezkoak izendatzea. Organoa berritzea.

12. artikulua. Gobernu Batzordearen bilkurak.

13. artikulua. Gobernu Batzordearen ahalmenak.

III. atala. Lehendakaria eta lehendakariordea.

14. artikulua. Mankomunitateko Lehendakaria eta Lehendakariordea.

15. artikulua. Lehendakariaren ahalmenak.

IV. atala. Organo osagarriak.

16. artikulua. Lan-mahaiak.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

*Estatutos de la Mancomunidad Beterri-Buruntza*

Aprobados definitivamente por cada uno de los Plenos de los Ayuntamientos integrantes de la «Mancomunidad de Beterri-Buruntza» de los municipios de Ándoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil, los Estatutos reguladores de la misma y de conformidad con lo previsto en el artículo 6.1 f) de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades supramunicipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se procede a la publicación de su texto íntegro.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Andoain, a 3 de diciembre de 2021.—La presidenta de la Comisión Promotora, M.ª José Izagirre Iturzaeta. (7864)

*Mancomunidad Beterri-Buruntza. Estatutos*

Índice

Capítulo I. Disposiciones generales.

Artículo 1. Constitución, denominación y sede.

Artículo 2. Naturaleza jurídica.

Artículo 3. Organización y funcionamiento.

Artículo 4. Vigencia de la Mancomunidad.

Capítulo II. Objeto.

Artículo 5. Objeto de la Mancomunidad.

Capítulo III. Órganos de Gobierno de la Mancomunidad.

Artículo 6. Estructura orgánica.

Sección I. Asamblea general.

Artículo 7. Asamblea General.

Artículo 8. Constitución y renovación de la Asamblea General.

Artículo 9. Sesiones de la Asamblea General.

Artículo 10. Facultades de la Asamblea General.

Sección II. Comisión de Gobierno.

Artículo 11. Comisión de Gobierno. Designación de miembros y suplentes. Renovación del órgano.

Artículo 12. Sesiones de la Comisión de Gobierno.

Artículo 13. Facultades de la Comisión de Gobierno.

Sección III. Presidencia y Vicepresidencia.

Artículo 14. Presidencia y Vicepresidencia de la Mancomunidad.

Artículo 15. Facultades de la Presidencia.

Sección IV. Órganos complementarios

Artículo 16. Mesas de trabajo.

EK\CV GAO-I-2021-07864

IV. kapitulua. Langileen araubidea.

17. artikulua. Mankomunitatearen zerbitzuko langileak.

18. artikulua. Idazkaritza.

V. kapitulua. Araubide ekonomikoa

19. artikulua. aplikatu beharreko araudia.

20. artikulua. baliabide ekonomiko-finantzarioak.

21. artikulua. Mankomunitatearen finantzaketa.

22. artikulua. aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea.

VI. kapitulua. Mankomunitatea zabaltzea, banantzea eta desegitea

23. artikulua. mankomunitatea handitzea.

24. artikulua. mankomunitatea kargutik kentzea.

25. artikulua. mankomunitatea desegitea.

26. artikulua. likidazio-prozedura.

VII. kapitulua. Estatutuak aldatzea

27. artikulua. estatutuak aldatzea.

Lehenengo xedapen iragankorra.

Bigarren xedapen iragankorra.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Xedapen gehigarria.

Azken xedapenetatik lehena.

Azken xedapenetatik bigarrena.

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Beterri-Buruntza eskualdea definitzea. Eraketa, izena eta legezko helbidea.*

1. Mankomunitatea Andoaingo, Astigarragako, Hernaniko, Lasarte-Oriako, Urnietako eta Usurbilgo udalerriek osatuko dute. Udalerri horiek Mankomunitatea eratuko dute, estatutu hauetako 5. artikuluan adierazten diren zerbitzuak/den eskuduntza antolatu, kudeatu eta emateko.

2. Sortu den toki-erakundeak Beterri-Buruntza Mankomunitatea du izena, eta legezko helbidea Hernanin du, Gabriel Zelaia eraikinean. Bertan egingo ditu bilkurak eta bilerak, eta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako edozein udaletxetan ere egin ahal izango ditu.

3. Mankomunitateak funtzionamendu deszentralizatua izango du, udalerri kide bakoitzean administrazio-leihatila izango du eta beste lokal batzuk eduki ahal izango ditu Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean.

*2. artikulua. Izaera juridikoa.*

1. Erakunde publiko hau Mankomunitatea da, eta nortasun eta gaitasun juridikoa ditu bere helburu espezifikoak betetzeko, indarrean dauden xedapenetan eta Mankomunitatea bera zuzentzen duten Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

2. Mankomunitateak, bere eginkizunak betetzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru arauek mankomunitateei esleitzen dizkieten ahalmen eta prerrogatiba guztiak izango ditu, eta bereziki:

a) Erregelamenduak egiteko eta nork bere burua antolatzeko ahalmenak.

b) Zerga- eta finantza-ahalmenak. Zerga-ahala tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezartzean eta eskatzean zehaztuko da, eratze-arauetan xedatutakoaren arabera, eta Gipuz-

Capítulo IV. Régimen de personal.

Artículo 17. Personal al Servicio de la Mancomunidad.

Artículo 18. Secretaría.

Capítulo V. Régimen económico.

Artículo 19. Normativa aplicable.

Artículo 20. Recursos económico-financieros.

Artículo 21. Financiación de la Mancomunidad.

Artículo 22. Régimen presupuestario y contable.

Capítulo VI. Ampliación, separación y disolución de la mancomunidad.

Artículo 23. Ampliación de la Mancomunidad.

Artículo 24. Separación de la Mancomunidad.

Artículo 25. Disolución de la Mancomunidad.

Artículo 26. Procedimiento de liquidación.

Capítulo VII. Modificación de los Estatutos

Artículo 27. Modificación de los Estatutos.

Disposición transitoria primera.

Disposición transitoria segunda.

Disposición transitoria tercera.

Disposición adicional.

Disposición final primera.

Disposición final segunda.

## CAPÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Definición de la comarca de Beterri-Buruntza. Constitución, denominación y domicilio legal.*

1. La Mancomunidad estará constituida por los municipios de Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil, que se constituyen en Mancomunidad para la organización, gestión y prestación de los servicios de su competencia que se indican en el artículo 5 de los presentes Estatutos.

2. La entidad local creada se denomina Mancomunidad Beterri-Buruntza, teniendo su domicilio legal en Hernani, Centro Gabriel Celaya, donde celebrará sus sesiones y reuniones, pudiendo celebrar éstas, asimismo, en cualquiera de las casas consistoriales de los municipios que conforman la Mancomunidad.

3. La Mancomunidad tendrá un funcionamiento descentralizado, con ventanilla administrativa en cada municipio miembro y podrá disponer de otros locales cuando lo acuerde la Asamblea General.

*Artículo 2. Naturaleza jurídica.*

1. Esta entidad pública tiene la naturaleza de Mancomunidad, teniendo personalidad y capacidad jurídica para el cumplimiento de sus fines específicos, de acuerdo con lo establecido en las disposiciones vigentes y en los presentes Estatutos, por los que se rige.

2. La Mancomunidad dispondrá, para el ejercicio de sus funciones, de todas las potestades y prerrogativas que atribuyan a las mancomunidades las normas forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa que las regulan, y en particular:

a) Las potestades reglamentaria y de autoorganización.

b) La potestades tributaria y financiera. La potestad tributaria se concretará en el establecimiento y exigencia de tasas, contribuciones especiales y precios públicos de conformidad

EK\CV GAO-I-2021-07864

koako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

c) Programatzeko edo planifikatzeko ahalmena.

d) Desjabetzeko eta ondasunak ofizioz ikertzeko, mugatzeko eta berreskuratzeko ahalmenak.

e) Legezkotasun-presuntzioa eta egintzen betearazgarritasuna.

f) Nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalmenak.

g) Bere egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahalmena.

h) Bere ondasun eta eskubideak enbargaezinak izatea, legeetan aurreikusitako moduan.

i) Ogasun Publikoari bere kredituei dagokienez aitortutako lehentasunak, hobespenak eta gainerako prerrogatibak, Foru Ogasunari dagozkionak kaltetu gabe.

*3. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.*

Mankomunitatearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa estatutu hauetan aurreikusitakora egokituko da, eta, halakorik ezean, beste hauetan ezartzen denera: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua edo horiek aldatzen dituzten arauak. Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Legetik aplikagarriak diren arauak. Toki erakundeei aplikagarri zaizkien gainerako legezko eta araubidezko xedapenak.

*4. artikulua. Mankomunitatearen indarraldia.*

Mankomunitatearen iraupen- edo indarraldi-epea mugagabea izango da, hargatik eragotzi gabe Estatutu hauetan ezarritako arrazoiengatik eta prozeduragatik desegitea.

II. KAPITULUA

XEDEA

*5. artikulua. Mankomunitatearen xedea.*

1. Mankomunitatearen azken helburua da Mankomunitatea osatzen duten udalerrien sustapen eta garapen sozioekonomikoa eta herritarren ongizatea hobetzen laguntzen duten jarduera guztiak egitea.

2. Helburu hori gauzatzeko, mankomunitateak udal-eskumenari esleitutako jarduera hauek garatu ahal izango ditu:

a) Eskualdeko Garapen Sozioekonomikorako Plan bat egitea. Plan horren ardatz nagusiak partaidetzazko prozesu estrategiko baten bidez ezarriko dira ezinbestean.

b) Giza garapen jasangarria errazten duten jarduerak proposatu eta sustatzea, ingurumena errespetatuz, sozialki arduratsua den jarduera ekonomikoa bultzatuz eta jarduera horien bidez herritarren parte-hartzea sustatuz.

c) Ekintzailetza orokorreko zerbitzu bat eskaintzea, ekonomia sozial eta solidarioan jarduera erraztuz, eskualdean jarduera ekonomiko berria sortzea ahalbidetuz.

d) Berrikuntza eta Garapen Zerbitzu bat eskaintzea eskualdeko enpresei.

e) Eskualdeko industria, merkataritza eta turismoa sustatzeko jarduerak antolatzea.

f) Eskualdeko Enplegu-Zerbitzu bat eskaintzea, enplegu duin eta kalitatezkoaren bidez gizarteratzea errazteko.

con lo dispuesto en sus propias normas de creación, y en los términos establecidos en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

c) La potestad de programación o planificación.

d) Las potestades expropiatoria y de investigación, deslinde y recuperación de oficio de sus bienes.

e) La presunción de legitimidad y la ejecutividad de sus actos.

f) Las potestades de ejecución forzosa y sancionadora.

g) La potestad de revisión de oficio de sus actos y acuerdos.

h) La inembargabilidad de sus bienes y derechos en los términos previstos en las leyes.

i) Las prelaciones y preferencias y demás prerrogativas reconocidas a la Hacienda Pública en relación con sus créditos, sin perjuicio de las que correspondan a la Hacienda Foral.

*Artículo 3. Organización y funcionamiento.*

La organización, funcionamiento y régimen jurídico de la Mancomunidad se ajustará a lo previsto en los presentes Estatutos y, en su defecto, a lo regulado en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, o normas que las modifiquen, en los preceptos de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi que pudieran ser de aplicación y en las demás disposiciones legales y reglamentarias aplicables a las entidades locales.

*Artículo 4. Vigencia de la Mancomunidad.*

El plazo de duración o de vigencia de la Mancomunidad será indefinido, sin perjuicio de su disolución por las causas y procedimiento establecidos en los presentes Estatutos.

CAPÍTULO II

OBJETO

*Artículo 5. Objeto de la Mancomunidad.*

1. El objetivo último de la Mancomunidad es la realización de cuantas actividades contribuyan a la promoción y desarrollo socioeconómico de los municipios que la integran y a la mejora del bienestar de su ciudadanía.

2. Para la materialización de tal fin, la Mancomunidad podrá desarrollar las siguientes actividades atribuidas a la competencia municipal:

a) Elaborar un Plan de Desarrollo Socioeconómico de la comarca, cuyos ejes principales se establecerán ineludiblemente a través de un Proceso Estratégico Participativo.

b) Proponer y promover actuaciones que faciliten el desarrollo humano sostenible, de forma que se respete el medio ambiente, se favorezca la actividad económica socialmente responsable y mediante las cuales se fomente la participación ciudadana.

c) Ofrecer un servicio de emprendeduría general y facilitando la actividad en la economía social y solidaria que facilite la creación de nueva actividad económica en la comarca.

d) Ofrecer un Servicio de Innovación y Desarrollo a las empresas de la comarca.

e) Organizar actividades de promoción, fomento industrial, comercial y turístico de la comarca.

f) Ofrecer un Servicio de Empleo comarcal que facilite la inclusión social a través del empleo digno y de calidad.

g) Udalei eta haien erakunde edo entitate instrumentalei aholkularitza ematea eskualdearen eta, bereziki, udalerriaren sustapen sozioekonomikoari buruz, eta, oro har, biztanleen ongizatea hobetzeari buruz.

h) Plan eta proiektu komunak gauzatzea, gizarte-zerbitzuen arloan prestazio eta zerbitzu komunak eskaintzea.

3. Aurreko jarduera horiek gauzatzeko, Mankomunitateak bere helburua lortzen laguntzen duten ekimen publiko edo pribatuekin lankidetzan jardungo du; itunak, hitzarmenak eta abar sinatuko ditu erakunde publiko edo pribatuekin, eskualdea sustatzeko jarduerak egiteko, eta aurrekoen antzeko beste edozein jarduera egingo du Mankomunitatearen helburua lortzeko. Mankomunitateko udalerriek Kudeaketa-mandatuak egin ahal izango dizkiote Mankomunitateari, artikulu honetan aurreikusitako eremuekin lotutako zerbitzuren bat taldean eman nahi badute baina eskumen hori ez bazaio eskualdatu edo eskuordetu mankomunitateari.

4. Mankomunitateak artikulu honetan berariaz aipatzen ez den eta udalaren eskumenekoa den beste edozein zerbitzu eman ahal izango du, baldin eta horretarako 27. artikuluan estatutuak aldatzeko ezarritako aldez aurreko prozedura errespetatzen bada eta haren xedearen barruan badago.

III. KAPITULUA

MANKOMUNITATEKO GOBERNU-ORGANOAK

*6. artikulua. Egitura organikoa.*

1. Organo hauek osatzen dute Mankomunitatea:

a) Batzar Nagusia.

b) Gobernu Batzordea.

c) Lehendakaritza eta Lehendakariordetza.

d) Beste organo osagarri batzuk.

2. Mankomunitateko kide diren udalerriak saiatuko dira bermatzen Mankomunitatearen barruan eratzen diren kide anitzeko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egon dadin beti.

I. ATALA. BATZAR NAGUSIA

*7. artikulua. Batzar Nagusia.*

1. Batzar Nagusia da Mankomunitateko organo subiranoa, eta estatutu hauetako 10. artikuluan araututako ahalmenak dagozkio.

2. Batzar Nagusia udalerri bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute, udal bakoitzeko osoko bilkurak aukeratuta. Udal bakoitzak bi titular eta bi ordezko aukeratuko ditu.

3. Udalerri bakoitzak boto-portzentaje bat izango du, aurreko ekitaldiko Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren banaketan izandako partaidetza-ehunekoaren arabera haztatuko dena. Beraz, boto-haztapen hori urtero finkatuko du Gobernu Batzordeak, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren banaketaren berri izan eta 15 egun naturaleko epean gehienez. Udalerri bakoitzaren portzentajea bi hamartarrekin ezarriko da. Udalerri bakoitzeko ehunekoa biribildu behar izanez gero, goranzko biribiltzea aplikatuko da beti, ehuneko txikiena duen udalerritik hasita eta, hala badagokio, ehuneko handiena duten udalerriekin jarraituz.

4. Udalerri bakoitzari dagokion botoa bitan banatuko da, hau da, Batzar Nagusia osatzen duten udalerrien ordezkari-ko-

g) Asesorar a los ayuntamientos y sus organismos o entidades instrumentales con relación a la promoción socioeconómica de la comarca y de su municipio en particular y en general, en relación con la mejora del bienestar de sus habitantes.

h) Ejecutar planes y proyectos comunes, ofrecer prestaciones y prestar servicios comunes en el ámbito de los servicios sociales.

3. Para hacer efectivas las anteriores actividades, la Mancomunidad colaborará con aquellas iniciativas públicas o privadas que contribuyan a la realización de su fin; firmará conciertos, convenios, etcétera, con entidades públicas o privadas para la realización de actividades que redunden en la promoción de la comarca y efectuará cualesquiera otras actuaciones análogas a las anteriores dirigidas a alcanzar el fin de la Mancomunidad. Los municipios de la Mancomunidad podrán efectuar encomiendas de gestión a la Mancomunidad cuando deseen prestar agrupadamente alguno de los servicios relacionados con los ámbitos previstos en este artículo, pero que no han sido objeto de transferencia de la competencia o delegación de su ejercicio a la Mancomunidad.

4. La Mancomunidad podrá prestar cualquier otro servicio, no expresamente mencionado en el presente artículo, que sea de competencia municipal, siempre y cuando se respete para ello el procedimiento previo establecido en el artículo 27 para la modificación de los Estatutos y que esté dentro de su objeto.

CAPÍTULO III

ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LA MANCOMUNIDAD

*Artículo 6. Estructura orgánica.*

1. La Mancomunidad está compuesta por los siguientes órganos:

a) Asamblea General.

b) Comisión de Gobierno.

c) Presidencia y Vicepresidencia.

d) Otros órganos complementarios.

2. Los municipios miembros de la Mancomunidad tratarán de garantizar que en los órganos colegiados que se constituyan en el seno de la Mancomunidad exista siempre una presencia equilibrada de mujeres y hombres.

SECCIÓN I. ASAMBLEA GENERAL

*Artículo 7. Asamblea General.*

1. La Asamblea General es el órgano soberano de la Mancomunidad y le corresponden las facultades reguladas en el artículo 10 de los presentes estatutos.

2. La Asamblea General estará formada por dos representantes de cada municipio elegidos por el pleno de cada ayuntamiento, el cual elegirá a dos titulares y dos suplentes.

3. Cada municipio tendrá un porcentaje de voto que será ponderado en base al porcentaje de participación en el reparto del Fondo Foral de Financiación Municipal del ejercicio anterior, de modo que tal ponderación de voto se fijará anualmente por la Comisión de Gobierno en el plazo máximo de 15 días naturales desde que tenga conocimiento de la distribución del Fondo Foral de Financiación Municipal. El porcentaje de cada municipio se establecerá con dos decimales. En el supuesto de que se precise redondeo del porcentaje de cada municipio, se aplicará siempre el redondeo al alza comenzando por el municipio de menor porcentaje y continuando, en su caso, con los municipios de mayor porcentaje.

4. El voto correspondiente a cada municipio se dividirá por dos, es decir, por el número de representantes de cada munici-

puruaren arabera. Udalerri bati emandako boto haztatuaren ehunekoa zati bi egin eta ondorengo emaitza zenbaki oso bat ez denean, ordezkari bakoitzaren boto haztatuak bi dezimal izan ditzake. Ordezkariei esleitutakoaren eta dagokion udalerriari dagokion ehunekoaren artean dagoen alde dezimala beti esleituko zaio, Batzar Nagusian ordezkaritza duten bien artean, ordezkaritza handiena duen udalerriko udal-taldea ordezkatzen duen pertsonari, azken udal hauteskundeetako emaitzen arabera.

*8. artikulua. Batzar Nagusia eratzea eta berritzea.*

1. Batzar Nagusia 45 egun naturaleko epean eratuko da, hauteskunde-legearen arabera hauteskunde prozesu bakoitzaren ondoren udalbatza berriak eratzea legokiokeen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Horretarako, jarduneko Lehendakariak Batzar Nagusiaren bilkura berezirako deia egin beharko du, eta bilkura horretan kide diren udalerriek izendatutako pertsonek parte hartuko dute.

2. Adin-Mahaia osatuko da, eta bertaratutakoen artean zaharrenak (Lehendakaria izango da) eta gazteenak osatuko dute. Ondorio horietarako, zinegotzi kargua hartu duten pertsonen nortasunari eta jaiotza-datari buruzko ziurtagiria bidaliko dute udalek, baldin eta udalbatzek Batzar Nagusiko kide izateko izendatu badituzte. Idazkaritza lanak Mankomunitatearentzat lan horiek egiten dituenak egingo ditu.

3. Kide guztiak edo, gutxienez, boto haztatuen gehiengo osoa bilerara bertaratuz gero, Adin-Mahaiko Lehendakariak formalki eratutzat joko du Mankomunitateko Batzar Nagusia.

4. Mankomunitatea eratu ondoren, Lehendakaria eta Lehendakariordea aukeratuko dira isilpeko bozketa bidez.

5. Lehendakaritza eta Lehendakariordetza kargurako hautagaitzak ekitaldia egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago aurkeztu beharko dira.

6. Lehenengo bozketan Lehendakaria hautatuko da. Boto haztatu gehien lortzen dituen hautagaia hautatuko da Lehendakari. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta Lehendakarigaiak aurreko bozketan berdindu dutenak baino ez dira izango. Berdinketak jarraitzen badu, Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietako emaitzak batuta udal hauteskundeetan boto gehien lortu dituen talde politikoaren hautagaia izendatuko da Lehendakari.

7. Ondoren, Lehendakariordea aukeratuko da. Kargu hori Lehendakariaz bestelako biltzarkide batek bete behar du. Boto haztatu gehien lortzen dituen hautagaia Lehendakariorde hautatuko da. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta hautagaiak aurreko bozketan berdindu dutenak izango dira. Berdinketak jarraitzen badu, Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietako emaitzak batuta udal-hauteskundeetan boto gehien lortu dituen talde politikoko pertsona hautatuko da berdindutako hautagaien artetik. Lehendakariordetza ezingo da izan ez Lehendakariaren talde politiko berekoa, ez eta Lehendakaria den udalerrikoa ere.

Lehendakariordetza ezingo da izan ez Lehendakariaren talde politiko berekoa, ez eta Lehendakaria den udalerrikoa ere.

8. Aurreko bozketak amaitutakoan, Adin-Mahaiak bere postuak utziko dizkie hautatutako karguei.

9. Batzar Nagusia osatzen duten pertsonek kide izateari utziko diote:

pio que forman parte de la Asamblea General. Cuando el resultado de dividir entre dos el porcentaje del voto ponderado atribuido a un municipio no sea un número entero, el voto ponderado de cada representante podrá tener dos decimales. La diferencia decimal de porcentaje existente entre el atribuido a los representantes y el porcentaje correspondiente al municipio de que se trate se atribuirá siempre a la persona que represente al grupo municipal más votado en su municipio, de los dos representados en la Asamblea General, según el resultado de las últimas elecciones municipales.

*Artículo 8. Constitución y renovación de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General se constituirá en el plazo de 45 días naturales contados a partir del día siguiente a aquel en que, conforme a la ley electoral, correspondería constituirse con carácter general las nuevas corporaciones municipales tras cada proceso electoral, para lo cual la Presidencia en funciones deberá convocar sesión extraordinaria de la Asamblea General, en la que participarán las personas designadas por los municipios miembros.

2. Se formará la Mesa de Edad, integrada por la persona de mayor edad entre las personas asistentes, que la presidirá, y la persona de menor edad. A estos efectos los Ayuntamientos remitirán certificación sobre la identidad y fecha de nacimiento de las personas que hayan tomado posesión de su cargo como concejales o concejalas y hayan sido designadas por los correspondientes plenos municipales para formar parte de la Asamblea General. En funciones de Secretaría actuará quien las ejerza para la Mancomunidad.

3. En caso de concurrencia a la sesión de la totalidad de los miembros o, al menos, la mayoría de los votos ponderados, el Presidente o la Presidenta de la Mesa de edad declarará formalmente constituida la Asamblea General de la Mancomunidad.

4. Una vez constituida la Mancomunidad, se procederá a la elección de la Presidencia y la Vicepresidencia mediante votación secreta.

5. Las candidaturas para el cargo de Presidencia y Vicepresidencia deberán ser presentadas con cuarenta y ocho horas de antelación a la celebración del acto.

6. En una primera votación se procederá a la elección del Presidente o Presidenta. La persona candidata que obtenga mayor número de votos ponderados será elegida Presidente o Presidenta. Caso de producirse empate, se procederá a una nueva votación, siendo las personas candidatas a la Presidencia únicamente las que hayan empatado en la anterior. Si persistiera el empate, se nombrará Presidente o Presidenta la persona candidata cuyo grupo político hubiera obtenido más votos en las elecciones municipales en el conjunto de los municipios integrantes de la Mancomunidad.

7. Posteriormente se elegirá la Vicepresidencia. Este cargo debe recaer en una persona asambleísta diferente del Presidente o de la Presidenta. La persona candidata que obtenga mayor número de votos ponderados será elegida Vicepresidente o Vicepresidenta. En caso de empate, se procederá a una nueva votación, siendo las personas candidatas aquellas que hayan empatado en la anterior votación. Si persistiera el empate, resultará elegida, de entre las personas candidatas empatadas, la persona perteneciente al grupo político que más votos hubiera obtenido en las elecciones municipales en el conjunto de los municipios integrantes de la Mancomunidad.

La Vicepresidencia no podrá pertenecer al mismo grupo político ni al mismo municipio que quien ostente la Presidencia.

8. Ultimadas las anteriores votaciones, la Mesa de edad cederá sus puestos a los cargos elegidos.

9. Las personas que componen la Asamblea General dejarán de pertenecer a la misma:

EK\CV GAO-I-2021-07864

a) Izendatu zuen udal-korporazioaren osoko bilkurak izendapena baliogabetzen duenean edo bere borondatez uko egiten dionean.

b) Udalbatzaren agintaldian zinegotzi izateari uzten dionean.

c) Jatorrizkoa duen udal-korporazioa berritzen denean. Kasu horretan, batzarkide gisa jarraituko du dagokion udalerriko korporazioak ordezkari berria izendatu arte.

*9. artikulua. Batzar Nagusiaren bilkurak.*

1. Batzar Nagusia 7. artikuluan deskribatutako pertsonek osatuko dute. Mankomunitateko Idazkaria ere batzordeko kide izango da. Hitza izango du, baina botorik ez. Zerbitzuen arduradunak bileretara joango dira, egokitzat jotzen denean, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

2. Batzarra urtean behin bilduko da, eta Lehendakariak deituko du. Deialdia gutxienez 5 egun baliodun lehenago egingo da ohiko bilkuretarako, eta udalerri bakoitzak bere ordezkari izateko izendatutako pertsonei bidaliko zaie.

3. Mankomunitatearen eta Batzar Nagusiko biltzarkideen arteko komunikazio-bideak erraztearren, eskura dauden bitarteko telematikoak erabiltzen direla zainduko da, betiere arlo honetan aplikatzekoa den araudia betetzen bada.

4. Ohiz kanpo, Lehendakariak egoki iritzitako Batzar Nagusiko bilkura guztiak deitu ahal izango ditu, ohiko bilkuretako aurrerapen berarekin jakinarazita.

5. Lehendakariak batzarrerako deia egingo du, gutxienez Batzar Nagusiaren edo Gobernu Batzordearen boto haztatuen laurden batek edo Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batek eskatzen duenean, dagokion Osoko Bilkuraren erabakiz, eta gai-zerrendan nahitaez sartu beharko dira batzarra egitea eskatzen dutenek eskatzen dizkioten puntuak. Eskaera Mankomunitateko Erregistroan sartu eta hurrengo hilabetean egin beharko da ezohiko bilkura.

Lehendakariak ez badu aipatutako epearen barruan eskatutako Batzar Berezirako deialdirik egiten, epe hori amaitu eta hurrengo hamargarren egun baliodunerako deituko da automatikoki, eguerdiko hamabietan. Idazkaritzako titularrak horren berri emango die batzordekide guztiei, arestian aipatutako epea amaitu eta hurrengo egunean. Lehendakaria edo haren ordezko legez arituko dena ez badago, Batzarra balioz eratuta geratuko da estatutu hauetan eskatzen den quoruma baldin badago; kasu horretan, bertaratutakoen artean adin handieneko ordezkaria izango da lehendakaria.

6. Batzar Nagusiko Lehendakariak premiazko bilkura bereziak deituko ditu, gaiaren presak hala eskatzen duenean. Kasu horretan, gai-zerrendako lehenengo gai gisa sartu beharko da Batzar Nagusiak presari buruz erabakia hartzea. Organo horren boto haztatuen gehiengo osoak hala erabaki ezean, bilkura amaitutzat emango da, eta ezin izango da inolako erabakirik hartu.

7. Edonola ere, deialdiaren iragarkian bileraren data, tokia, ordua eta aztertuko diren gai guztiak adierazi beharko dira. Ezin izango da erabakirik hartu gai-zerrendan berariaz jasota ez dauden gaiei buruz, organoak legezko kide-kopuruaren boto haztatuen gehiengo osoaren aldeko botoarekin aurrez hautemandako presazko kasuetan izan ezik.

a) Cuando su designación sea revocada por el Pleno de la corporación municipal que lo designó o cuando voluntariamente renunciase.

b) Cuando durante el mandato de la corporación municipal a la que pertenece perdiera la condición de concejal o concejala.

c) Cuando se produce la renovación de la corporación municipal de la que proviene. En este supuesto permanecerá como asambleísta hasta que la corporación del municipio al que pertenece designe nueva persona representante.

*Artículo 9. Sesiones de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General estará constituida por las personas descritas en el artículo 7. También formará parte de la misma el Secretario o Secretaria de la Mancomunidad con voz, pero sin voto. Las personas responsables de servicios asistirán a las sesiones, cuando así se considere, con voz, pero sin voto.

2. La Asamblea se reunirá con una frecuencia anual, y será convocada por la Presidencia. La convocatoria se efectuará con una antelación no inferior a 5 días hábiles para las sesiones ordinarias y se remitirá a las personas designadas por cada municipio para representar al mismo.

3. Con el objeto de facilitar los canales de comunicación entre la Mancomunidad y las personas asambleístas de la Asamblea General, se velará por el empleo de los medios telemáticos disponibles, siempre y cuando se dé cumplimiento a la normativa de aplicación en esta materia.

4. De forma extraordinaria, la persona que ejerza la Presidencia podrá convocar cuantas sesiones de la Asamblea General estime oportuno, notificándolo con la misma antelación que en las sesiones ordinarias.

5. La persona que ejerza la Presidencia también convocará la Asamblea cuando lo soliciten una cuarta parte, al menos, de los votos ponderados de la Asamblea General o la Comisión de Gobierno, o bien uno de los municipios integrantes de la Mancomunidad, por acuerdo de su Pleno, debiendo incluir obligatoriamente en el orden del día aquellos puntos que le fueren solicitados por quienes soliciten la celebración de la Asamblea. La celebración de la sesión extraordinaria deberá efectuarse en el mes siguiente a aquella fecha en la que la solicitud tuviera entrada en el Registro de la Mancomunidad.

Si el Presidente no convocase la Asamblea extraordinaria solicitada por el número de representantes indicado dentro del plazo señalado, quedará automáticamente convocado para el décimo día hábil siguiente al de finalización de dicho plazo a las doce horas, lo que será notificado por la persona titular de la Secretaría a todos los miembros de la misma al día siguiente de la finalización del plazo citado anteriormente. En ausencia del Presidente o de quien legalmente haya de sustituirle la Asamblea quedará válidamente constituida siempre que concurra el quórum requerido en los presente Estatutos, en cuyo caso será presidida por el representante de mayor edad entre los presentes.

6. Se convocarán sesiones extraordinarias de carácter urgente por quien ejerza la Presidencia de la Asamblea General cuando la urgencia del asunto lo exija. En este caso deberá incluirse como primer asunto del Orden del día el pronunciamiento de la Asamblea General sobre la urgencia. Si ésta no fuera apreciada por la mayoría absoluta de los votos ponderados de dicho órgano se levantará acto seguido la sesión, sin que pueda adoptarse acuerdo alguno.

7. En todo caso, el anuncio de la convocatoria deberá indicar la fecha de la reunión, el lugar, hora y todos los asuntos que vayan a tratarse. No podrán adoptarse acuerdos sobre asuntos que no aparezcan expresamente consignados en el orden del día, salvo supuestos de urgencia apreciados previamente por el órgano con el voto favorable de la mayoría absoluta de los votos ponderados de dicho órgano.

EK\CV GAO-I-2021-07864

8. Bilkurak baliozko eran egiteko quoruma haztatutako botoen erdia gehi bat da, eta gutxienez 3 udalerri behar bezala ordezkatuta egonik. Nahitaezkoa izango da Lehendakaria edo, halakorik ezean, Lehendakariordea eta Idazkaria edo haren ordezkoa bertaratzea.

9. Bilkurarako deialdian adieraziko da lehen deialdian quorumik ez badago bigarren deialdian egingo dela bilkura, ordu erdi igaro ondoren, eta beharrezkoa izango dela, halaber, haztatutako botoen herena bertaratzea.

10. Kide anitzeko organo horren funtzionamenduari buruzko gainerako gaietan, tokierakundeen antolamenduari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko araudiak arautzen duena beteko da.

*10. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.*

1. Batzar Nagusiak eskumen hauek ditu:

a) Estatutuak aldatzea.

b) Mankomunitatea desegin eta likidatzea.

c) Mankomunitatea handitzeari eta mankomunitatik bereizteari buruzko erabakiak hartzea.

d) Kudeaketa-planak, urteko kontuak, aurrekontuak eta horiek gauzatzeko oinarriak onartzea.

e) Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.

f) Mankomunitateko kide diren udalerriek eta beste administrazio publiko batzuek eskumenak eskuordetzan ematea onartzea.

g) Gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa.

h) Tasa eta prezio publikoak onartzea.

i) Gobernu Batzordeko kideak izendatzea.

j) Barne-araubideari buruzko Erregelamendua onartzea.

2. Erabaki guztiak hartzeko, boto haztatuen 2/3ko gehiengo kualifikatua beharko da.

3. Korporazioen agintaldiaren amaieratik Batzar Nagusi berria eratu arteko aldian, ezingo da lehenengo paragrafoan jasotako gaiei buruzko erabakirik hartu, g) letran deskribatutakoak izan ezik.

II. ATALA. GOBERNU BATZORDEA

*11. artikulua. Gobernu Batzordea. Kideak eta ordezkoak izendatzea. Organoa berritzea.*

1. Gobernu Batzordea Lehendakariak, Lehendakariordeak eta batzordekideek osatuko dute, jarraian adierazten den prozeduraren arabera.

2. Gobernu Batzordea udal bakoitzeko ordezkari batek osatuko du. Ordezkari hori Batzar Nagusiak izendatuko du bere kideen artean, eta Lehendakaria eta Lehendakariordea ez diren beste udalerri batzuetakoak izango dira. Kide horietarako hautagaitzak Batzar Nagusia egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago aurkeztu beharko dira. Ordezkari batek eta haren ordezkoak batzordeko kide izateari uko egiten badiote, beste kide eta ordezko bat aukeratuko dira, batzar nagusiak hala erabakita, udalerri bereko ordezko ordezkarien artean.

3. Ordezkari bakoitzak boto bat izango du. Boto hori Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren banaketan duen partaidetza-ehunekoaren arabera haztatuko da, eta, beraz, boto-hazta-

8. El quórum para la válida celebración de las sesiones es de la mitad más uno del número de votos ponderados y con un mínimo de 3 municipios debidamente representados. Será preceptiva la asistencia del Presidente o Presidenta, o, en su defecto, del Vicepresidente o Vicepresidenta, y del Secretario o Secretaria, o persona sustituta.

9. En la convocatoria de la sesión se hará constar que, a falta de quórum en primera convocatoria, se celebrará sesión en segunda convocatoria transcurrida media hora, siendo necesaria también la asistencia de un tercio del número de votos ponderados.

10. En los restantes temas sobre el funcionamiento de este órgano colegiado, se estará a lo que la normativa sobre organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales regule.

*Artículo 10. Facultades de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General tiene las siguientes atribuciones:

a) La modificación de los Estatutos.

b) La disolución y liquidación de la Mancomunidad.

c) La ampliación y separación de miembros de la Mancomunidad.

d) La aprobación de los planes de gestión, las cuentas anuales, los presupuestos y sus bases de ejecución.

e) La aprobación de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo.

f) La aceptación de la delegación de competencias hecha por los municipios miembros de la Mancomunidad, así como por otras Administraciones Públicas.

g) El control y fiscalización de los órganos de gobierno.

h) La aprobación de tasas y precios públicos.

i) La designación de los miembros de la Comisión de Gobierno.

j. La aprobación del Reglamento de Régimen Interior de la Mancomunidad.

2. La adopción de todos los acuerdos requerirá una mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados.

3. Durante el periodo comprendido entre el final del mandato de las corporaciones y la constitución de la nueva Asamblea General no se podrán adoptar acuerdos sobre las materias recogidas en el apartado primero, salvo las descritas en su letra g).

SECCIÓN II. COMISIÓN DE GOBIERNO

*Artículo 11. Comisión de Gobierno. Designación de miembros y suplentes. Renovación del órgano.*

1. La Comisión de Gobierno estará compuesta por el Presidente o Presidenta, el Vicepresidente o Vicepresidenta y los o las vocales en número que resulten de conformidad con el procedimiento que se indica a continuación.

2. La Comisión de Gobierno estará formada por una persona representante de cada ayuntamiento designada por la asamblea general entre sus integrantes y que sean de diferentes municipios que el Presidente o la Presidenta, y el Vicepresidente o la Vicepresidenta. Las candidaturas para dichas vocalías deberán ser presentadas con cuarenta y ocho horas de antelación a la celebración de la Asamblea General. En el caso de que una persona representante y su suplente renunciasen al cargo de vocal de la Comisión, se elegirán otra persona vocal y suplente por acuerdo de la asamblea general entre los representantes suplentes del mismo municipio.

3. Cada representante tendrá un voto que será ponderado en base al porcentaje de participación en el reparto del Fondo Foral de Financiación Municipal, de modo que tal ponderación

pen hori Gobernu Batzordeak finkatuko du urtero, gehienez ere hamabost egun naturaleko epean, dagokion ekitaldiko Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren banaketaren berri izan eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean.

4. Batzarkideen artean, Lehendakaria eta Lehendakariordea ez diren beste udalerri batzuetako beste hainbeste ordezko izendatuko dira, eta pertsona horiek jardungo dute titularrak uko egiten badio, korporaziokide izateari uzten badio, izendapena errebokatzen badu, titularra ez badago edo gaixorik badago.

5. Batzordeko kideen agintaldia udala berritzean amaituko da, baina bitarteko izaerarekin jarraituko dute Mankomunitateko zuzendaritza-organo berriak eratu arte. Agintaldia amaituko da, halaber, ordezkaria errebokatzen bada edo horri uko egiten badio edo korporazioko kide izateari uzten badio.

*12. artikulua. Gobernu Batzordearen bilerak.*

1. Gobernu Batzordearen bilkuretan Mankomunitateko Idazkariak ere parte hartuko du. Hitza izango du, baina botorik ez. Zerbitzu-arduradunak bileretara joango dira, egokitzat jotzen denean, eta hitza izango dute, baina botorik ez. Batzordearen bilkurak ez dira publikoak izango.

2. Gobernu Batzordea gutxienez bi hilean behin bilduko da, eta Lehendakariak deituko du. Deialdia Lehendakariak egingo du, ohiko bilkuretarako 3 egun baliodunеko aurrerapenez.

3. Ezohiko bilkurak Lehendakariak deituko ditu, gutxienez batzordeko botu haztatuen laurdenak edo, bestela, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batek idatziz eskatuta.

4. Presazko bilkura berezietarako deialdia egingo du Lehendakariak, gaiaren presak hala eskatzen duenean.

5. Artikulu honetan Batzordearen funtzionamenduari buruzko berariazko aurreikuspenik ez badago, Estatutuen 9. artikuluan Batzar Nagusirako aurreikusitakoa aplikatuko da lehenik, eta toki-erakundeen antolamenduari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko araudia osagarri gisa.

*13. artikulua. Gobernu Batzordearen ahalmenak.*

1. Gobernu Batzordeak legeek udaletako osoko bilkurari ematen dizkioten ahalmenak izango ditu, estatutu hauetako 10. artikuluan zerrendatutako gaiak izan ezik. Halaber, ahalmen hauek izanen ditu:

a) Dagokion Foru Araua argitaratu ondoren, udalerri bakoitzeko botoen ehunekoa finkatzea.

b) Lan-mahaiak ezartzea.

c) Berariazko proiektu eta programak barrutik eta kanpotik finantzatzeko irizpideak ezartzea.

d) Aparteko ekarpenen likidazioa onartzea.

2. Bilkurak baliozko eran egiteko quoruma haztatutako botoen erdia gehi bat da, eta gutxienez 3 udalerri behar bezala ordezkatuta egonik. Nahitaezkoa izango da Lehendakaria edo, halakorik ezean, Lehendakariordea eta Idazkaria edo haren ordezkoa bertaratzea.

3. Erabaki guztiak hartzeko, boto haztatuen 2/3ko gehiengo kualifikatua beharko da.

de voto se fijará anualmente por la Comisión de Gobierno en el plazo máximo de quince días naturales desde que tenga conocimiento de la distribución del Fondo Foral de Financiación Municipal del ejercicio correspondiente.

4. Se designarán, entre las personas asambleístas, otras tantas personas suplentes, de municipios diferentes a la Presidencia y a la Vicepresidencia, que actuarán en el supuesto de renuncia de la persona titular, pérdida de la condición de corporativo/a, revocación de su nombramiento, ausencia o enfermedad de la persona titular.

5. El mandato de las personas miembro de la Comisión expirará al renovarse el ayuntamiento, si bien continuarán con carácter interino hasta que se constituyan los nuevos órganos rectores de la Mancomunidad. El mandato expirará asimismo si fuere revocado o renunciase a él el o la representante o perdiere la condición de miembro de la corporación.

*Artículo 12. Sesiones de la Comisión de Gobierno.*

1. En las sesiones de la Comisión de Gobierno también formará parte de la misma el Secretario o Secretaria de la Mancomunidad con voz, pero sin voto. Las personas Responsables de Servicios asistirán a las sesiones, cuando así se considere, con voz, pero sin voto. Las sesiones de la Comisión no serán públicas.

2. La Comisión de Gobierno se reunirá con una frecuencia mínima bimestral, y será convocada por la Presidencia. La convocatoria se efectuará por la Presidencia con una antelación de 3 días hábiles para las sesiones ordinarias.

3. Las sesiones extraordinarias serán convocadas bien por la Presidencia, a petición escrita de al menos la cuarta parte de votos ponderados de la Comisión, o bien por uno de los municipios integrantes de la Mancomunidad.

4. Se convocarán sesiones extraordinarias de carácter urgente por quien ejerza la Presidencia cuando la urgencia del asunto lo exija.

5. A falta de previsión expresa en el presente artículo sobre el funcionamiento de la Comisión, se aplicará primeramente lo previsto para la Asamblea General en el artículo 9 de los Estatutos, y supletoriamente la normativa sobre organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales.

*Artículo 13. Facultades de la Comisión de Gobierno.*

1. La Comisión de Gobierno dispondrá de las facultades que las Leyes confieren al Pleno de los Ayuntamientos, con la salvedad hecha de las materias enumeradas en el artículo 10 de los presentes Estatutos. Asimismo, ostentará las siguientes facultades:

a) La fijación del porcentaje de votos de cada municipio tras la publicación de la correspondiente Orden Foral.

b) El establecimiento de mesas de trabajo.

c) El establecimiento de los criterios para la financiación interna y externa de proyectos y programas específicos.

d) La aprobación de la liquidación de contribuciones extraordinarias.

2. El quórum para la válida celebración de las sesiones es de la mitad más uno del número de votos ponderados y con un mínimo de 3 municipios debidamente representados. Será preceptiva la asistencia del Presidente o Presidenta, o, en su defecto, del Vicepresidente o Vicepresidenta, y del Secretario o Secretaria, o persona sustituta.

3. La adopción de todos los acuerdos requerirá una mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados.

EK\CV GAO-I-2021-07864

III. ATALA. LEHENDAKARITZA ETA LEHENDAKARIORDETZA

*14. artikulua. Lehendakaria eta Lehendakariordea.*

1. Batzar Nagusiko Lehendakariak eta Lehendakariordeak Mankomunitateari eta Gobernu Batzordeari dagokienez ere jardungo dute.

2. Horien izendapena Estatutu hauetako 8. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

3. Udal-hauteskundeen ondoren lehenengo Batzar Nagusia egiten denean utziko diote Lehendakari eta Lehendakariorde izateari. Batzar horretan, erakunde mankomunatuek izendatutako ordezkari berriek parte hartuko dute, eta Lehendakari eta Lehendakariorde berria izendatuko dira ordezkarien artean.

4. Lehendakariordearen eginkizunak betetzen dituenak Lehendakaria ordezkatuko du, baldin eta kargua hutsik badago, kanpoan bada edo gaixorik badago, eta azken honek bere jarduera harengan eskuordetzen duen guztietan.

*15. artikulua. Lehendakariaren ahalmenak.*

Lehendakaritzaren eskumenak dira Legeek Udaletako alkatetzari ematen dizkioten guztiak.

IV. ATALA. ORGANO OSAGARRIAK

*16. artikulua. Lan mahaiak.*

1. Gobernu Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen lan-mahai guztiak sortu ahal izango ditu Mankomunitateko zerbitzuak behar bezala kudeatzeko.

2. Mahaia sortzeko erabakiak bere osaerari buruzko zehaztapenak jasoko ditu, batez ere, politikoa eta teknikoa, Mankomunitateko bertako eta udalerri mankomunatuetako langileak, eta agindutako erantzukizunei buruzkoak.

3. Mahai horiek, funtsean, organo eskudunei proposamenak planifikatzeaz, koordinatzeaz eta horien berri emateaz arduratuko dira, bai eta aztertu behar dituzten zerbitzuen erabakien jarraipena egiteaz ere.

4. Mahaiek aholkularitza-lanak egiteko eskatu ahal izango diete arlo horretan eskumena edo ospea duten pertsona fisiko eta juridikoei, bai bileretan parte hartuz, bai Mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eginez.

IV. KAPITULUA

LANGILEEN ARAUBIDEA

*17. artikulua. Mankomunitatearen langileak.*

1. Mankomunitatearen langileei funtzio publikoari buruzko indarreko araudia aplikatuko zaie, bai eta enplegatu publikoei aplikatu beharreko gainerako araudia ere.

2. Administrazio-eginkizunak betetzeko, Mankomunitateko Batzarrak, urtero aurrekontua onartzearekin batera, karrerako funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behinbehineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda eta plantilla onartuko ditu, tokierakundeei aplikatu beharrekoak diren eta lanpostu horiek erregulatzen dituzten arauen arabera.

3. Mankomunitateko langileak, funtzionarioak zein lan-kontratudunak, lan-eskaintzaren arabera hautatuko dira, deialdi publikoaren bidez eta legez aurreikusitako sistemen bidez. Sistema horietan, betiere, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatuko dira.

SECCIÓN III. PRESIDENCIA Y VICEPRESIDENCIA

*Artículo 14. Presidencia y Vicepresidencia.*

1. Las personas que ejerzan la Presidencia y Vicepresidencia de Asamblea General la ejercerán también respecto de la Mancomunidad y la Comisión de Gobierno.

2. Su designación se realizará de acuerdo con el procedimiento establecido en el artículo 8 de estos Estatutos.

3. La Presidencia y Vicepresidencia cesarán en el momento en que se celebre la primera Asamblea General tras las elecciones municipales en la que participen los nuevos representantes designados por los entes mancomunados y se designe la nueva Presidencia y Vicepresidencia entre los representantes.

4. Quien ejerza las funciones de Vicepresidencia sustituirá a la persona que ejerza la Presidencia en caso de vacante, ausencia o enfermedad, y en todas las ocasiones que ésta última delegue en aquélla su actividad.

*Artículo 15. Facultades de la Presidencia.*

Son facultades de la Presidencia todas aquellas que las Leyes confieran a la alcaldía de los Ayuntamientos.

SECCIÓN IV. ÓRGANOS COMPLEMENTARIOS

*Artículo 16. Mesas de trabajo.*

1. La Comisión de Gobierno podrá crear cuantas mesas de trabajo estime necesarias para la adecuada gestión de los diversos servicios de la Mancomunidad.

2. El acuerdo de creación de una Mesa contendrá especificaciones sobre su composición, principalmente político-técnica e integrante de personal de la propia Mancomunidad y los municipios mancomunados, y las responsabilidades encomendadas.

3. Estas Mesas se encargarán fundamentalmente de la planificación, coordinación, elevación de propuestas a los órganos competentes, y seguimiento de acuerdos de aquellos servicios cuyo estudio se les atribuya.

4. Las Mesas podrán solicitar a personas físicas y jurídicas con competencias o prestigio sobre la correspondiente materia, el ejercicio de labores de asesoramiento, bien con la presencia en sus sesiones o a través de la realización de cuantos informes considere precisos la Mesa.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN DE PERSONAL

*Artículo 17. Personal al servicio de la Mancomunidad.*

1. Al personal al servicio de la Mancomunidad le será de aplicación la normativa sobre función pública vigente, así como la restante normativa que resulte de aplicación a las personas empleadas públicas.

2. Para el desarrollo de sus funciones administrativas, la Asamblea de la Mancomunidad, simultáneamente a la aprobación anual del presupuesto, aprobará la plantilla y relación de puestos de trabajo reservados a personal funcionario de carrera, personal laboral y personal eventual, con arreglo a las normas reguladoras de los mismos, de aplicación a las Entidades Locales.

3. La selección del personal de la Mancomunidad, tanto funcionario como laboral, se realizará de acuerdo con la oferta de empleo, mediante convocatoria pública y a través de los sistemas legalmente previstos en los que se garanticen, en todo caso, los principios de igualdad, mérito y capacidad.

EK\CV GAO-I-2021-07864

4. Mankomunitateak, beste erakunde batzuek emandako zerbitzuak bere gain hartzen dituenean, eragindako giza baliabideen lan-egoera negoziatuko du eta Legearen arabera jardungo du.

5. Zerbitzuaren beharrak direla-eta, eta Mankomunitateko Lehendakariak hala eskatuta, mankomunitateko udalerrietako Alkateek Mankomunitateari atxiki ahal izango dizkiote Mankomunitatea behar bezala garatzeko behar diren giza baliabideak, aplikatu beharreko legeari jarraikiz.

*18. artikulua. Idazkaritza eta Kontuhartzailetza.*

1. Mankomunitatean beharrezkoak diren funtzion publikoak dira, eta horien erantzukizuna estatu-gaikuntza duten Toki-Administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuta daude:

a. Idazkaritzakoa, fede publikoa eta nahitaezko lege-aholkularitza biltzen dituena.

b. Ekonomia- eta finantza-Kudeaketaren eta aurrekontu-Kudeaketaren barne-kontrola eta fiskalizazioa, eta kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa.

2. Mankomunitateak artikulu honetako 1. zenbakian zehazten diren funtzioak esleituta dituen lanpostua izango du. Aipatu funtzionarioen araubide juridikoari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

V. ATALA

ARAUBIDE EKONOMIKOA

*19. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.*

Mankomunitateko Ogasuna, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta, bereziki, horren III. tituluan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren esparruan, estatutu hauetan aurreikusitako baliabideek osatuko dute.

*20. artikulua. Baliabide ekonomiko-finantzarioak.*

Mankomunitatearen baliabide ekonomiko-finantzarioak honako hauek izan daitezke:

a) Mankomunitatea osatzen duten toki-erakundeen ekarpen arruntak eta apartekoak.

b) Bere ondaretik datozen diru-sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.

c) Dirulaguntzak.

d) Kreditu-eragiketen emaitza.

e) Mankomunitateak ematen dituen obra edo zerbitzuen onuradunek edo erabiltzaileek ordaindu beharreko tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak.

f) Bere eskumenen eremuan jarritako isunen eta zehapenen emaitza.

g) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

*21. artikulua. Mankomunitatearen finantzaketa.*

1. Mankomunitatearen funtzionamendurako beharrezkoak diren ekarpen arruntak Gobernu Batzordeak Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren (UFFF) banaketaren arabera ezarritako ehunekoaren arabera ordainduko dituzte erakunde mankomunatuek, estatutu hauen 7. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

2. Urteko ekarpen arruntez gain, erakunde mankomunatuek aparteko ekarpenak egin beharko dituzte proiektu espezifikoei, inbertsioei eta bestelako aparteko gastuei erantzuteko.

3. Udal bakoitzak hiru hilean behin egingo du ohiko ekarpen ekonomikoa, Mankomunitateak onartutako urteko aurrekontuaren arabera.

4. La Mancomunidad, cuando asuma servicios prestados por otras entidades, negociará la situación laboral de los recursos humanos afectados y actuará conforme a la Ley.

5. Por necesidades del servicio, y a petición de la Presidencia de la Mancomunidad, las Alcaldías de los municipios mancomunados, podrán adscribir a la Mancomunidad, los recursos humanos necesarios para el normal desenvolvimiento de la misma de conformidad con el ordenamiento jurídico aplicable.

*Artículo 18. Secretaría e Intervención.*

1. Son funciones públicas necesarias en la mancomunidad cuya responsabilidad está reservada a funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter estatal:

a. La de secretaría, comprensiva de la fe pública y el asesoramiento legal preceptivo.

b. El control y fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria, y la contabilidad, tesorería y recaudación.

2. La Mancomunidad dispondrá de un puesto de trabajo que tenga asignadas las funciones especificadas en el apartado 1 de este artículo. Se aplicará lo establecido en la normativa reguladora del régimen jurídico de dichos funcionarios.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN ECONÓMICO

*Artículo 19. Normativa aplicable.*

La Hacienda de la Mancomunidad estará constituida, en el marco de lo establecido en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, en especial su Título III, y disposiciones que la desarrollen, por los recursos previstos en los presentes Estatutos.

*Artículo 20. Recursos económico-financieros.*

Los recursos económico-financieros de la Mancomunidad podrán ser los siguientes:

a) Aportaciones ordinarias y extraordinarias de las entidades locales integrantes en la Mancomunidad.

b) Ingresos procedentes de su patrimonio y demás de derecho privado.

c) Las subvenciones.

d) El producto de las operaciones de crédito.

e) Tasas, contribuciones especiales y precios públicos que hayan de satisfacer los beneficiarios o usuarios de las obras o servicios que preste la Mancomunidad.

f) El producto de multas y sanciones en el ámbito de sus competencias.

g) Demás prestaciones de derecho público.

*Artículo 21. Financiación de la Mancomunidad.*

1. Las aportaciones ordinarias necesarias para el funcionamiento de la Mancomunidad serán abonadas por los entes mancomunados en función del porcentaje establecido por la Comisión de Gobierno conforme al reparto del Fondo Foral de Financiación Municipal (FFFM), tal y como está previsto en el artículo 7, apartado 3, de estos estatutos.

2. Además de las aportaciones ordinarias anuales, los entes mancomunados deberán realizar aportaciones extraordinarias para atender proyectos específicos, inversiones y cualesquiera otros gastos extraordinarios.

3. Cada ayuntamiento realizará trimestralmente la pertinente aportación económica ordinaria en base al presupuesto anual aprobado por la Mancomunidad.

EK\CV GAO-I-2021-07864

4. Proiektu espezifikoetarako aparteko ekarpenak kalkulatzeko, obra, zerbitzu edo jarduera bakoitzak Mankomunitateko udalerri bakoitzarentzat duen onura desberdina hartuko da kontuan. Mankomunitateak proiektu edo programa zehatzak abian jartzen dituenean, Gobernu Batzordearen bidez ezarriko ditu proiektu edo programa horien barne- eta kanpo finantzaketarako irizpideak. Gobernu Batzordeak urtero onartuko du proiektu edo programa horietarako aparteko ekarpenen likidazioa.

5. Artikulu honetan jasotako betebeharrak betetzeko, udalerri mankomunatuetako udalek beren aurrekontuetan kontsignatu beharko dituzte hiru hilean behin egin beharreko ekarpenak, Mankomunitateak egindako likidazioaren ondoren. Ekarpen horiek nahitaezko eta lehentasunezko ordainketatzat hartuko dira ondorio guztietarako. Udalerriek egiten dituzten ezbetetzeei dagokienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 15. aginduak araututakoa beteko da.

6. Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietan, 5. artikuluan jasotako zerbitzuak emateagatiko tasak homogeneoak izango dira, dagozkion ordenantza fiskalek eta mankomunitatearen eta kiden diren udalerrien artean izenpetutako lankidetza-hitzarmenek ezartzen dutena beteko da.

*22. artikulua. Aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea.*

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aurrekontuei eta gastu publikoari buruz jasotako arauak eta hura garatzen duten xedapenak aplikatuko zaizkio Mankomunitateari.

2. Halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen mende egongo da, eta bere kontuak eta Kudeaketa ekonomikoa kontrolatu eta fiskalizatuko ditu, aipatutako araudian ezarritako moduan.

VI. KAPITULUA

MANKOMUNITATEA ZABALTZEA, BANANTZEA ETA DESEGITEA

*23. artikulua. Mankomunitatea handitzea.*

1. Mankomunitateko kide ez den udalerri bat onartzeko, prozedura honi jarraitu beharko zaio:

a) Erakunde interesdunak aldez aurretiko erabakia, osoko bilkuraren gehiengo osoak hartutakoa.

b) Mankomunitateak, Gobernu Batzordearen bitartez, eskaera bideragarria den ala ez jakinaraziko du, eta, kasu horretan, sartzeko baldintzak adieraziko ditu. Batzar Nagusiak, berriz, bidezkoa dena erabakiko du, boto haztatuen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin.

c) Atxikitzearen aldeko erabakia jakinarazi ondoren, hala badagokio, udalerri interesdunak estatutuak onartzea erabaki beharko du, eta Mankomunitateko kide anitzeko organoetan bere ordezkaritza izendatu.

d) Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa formalizatu ondoren, dagokion estatutu-aldaketa egingo da, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

*24. artikulua. Mankomunitatetik bereiztea.*

Udalerri batek bere borondatez Mankomunitateko kide izateari utz diezaion, udalerri horrek baliozko eran hartu beharko du erabakia, eta Mankomunitateari jakinarazi beharko dio. Jaki-

4. Las aportaciones extraordinarias para proyectos específicos se calcularán en función del diferente beneficio que cada obra, servicio o actividad represente para cada uno de los municipios integrantes de la Mancomunidad. Cuando la Mancomunidad ponga en marcha proyectos o programas concretos establecerá a través de la Comisión de Gobierno los criterios de financiación interna y externa de tales proyectos o programas. La liquidación de las aportaciones extraordinarias para tales proyectos o programas se aprobará por la Comisión de Gobierno anualmente.

5. Para cumplir las obligaciones contenidas en este artículo, los ayuntamientos de los municipios mancomunados deberán consignar en sus presupuestos las aportaciones que deban realizar a la misma que se efectuarán con carácter trimestral, tras la correspondiente liquidación emitida por la Mancomunidad. Dichas aportaciones tendrán a todos los efectos la consideración de pagos obligatorios y de carácter preferente. En lo que a incumplimientos por parte de los municipios integrantes se refiere, se estará a lo regulado por el precepto 15 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

6. Las tasas por la prestación de servicios recogidos en el artículo 5 serán homogéneas en todos los municipios que integran la Mancomunidad, estándose a lo que establezcan las respectivas ordenanzas fiscales y, en su caso, los convenios de colaboración suscritos entre la Mancomunidad y los municipios integrantes.

*Artículo 22. Régimen presupuestario y contable.*

1. Serán aplicables a la Mancomunidad las normas sobre presupuestos y gasto público contenidas en la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y disposiciones que la desarrollen.

2. Estará sometida igualmente al régimen de contabilidad pública y al control y fiscalización de sus cuentas y de su gestión económica en los términos establecidos en la citada normativa.

CAPÍTULO VI

AMPLIACIÓN, SEPARACIÓN Y DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD

*Artículo 23. Ampliación de la Mancomunidad.*

Para la aceptación de un municipio no integrado en la Mancomunidad en el seno de la misma, será necesario seguir el siguiente procedimiento:

a) Acuerdo previo de la entidad interesada, adoptado por la mayoría absoluta del Pleno.

b) La Mancomunidad, a través de la Comisión de Gobierno, informará sobre la viabilidad o no de la solicitud, señalando en aquel caso las condiciones de incorporación, y la Asamblea General acordará lo que proceda, con la mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados.

c) Notificado el acuerdo positivo a la adhesión, en su caso, el municipio interesado deberá acordar la aprobación de los Estatutos y designar su representación en los órganos colegiados de la Mancomunidad.

d) Formalizado lo previsto en los anteriores párrafos, se procederá a la modificación estatutaria correspondiente, siguiendo el procedimiento establecido en el artículo 27.

*Artículo 24. Separación de la Mancomunidad.*

Para que un municipio deje de formar parte voluntariamente de la Mancomunidad, deberá aquel adoptar válidamente la decisión y comunicarla a la Mancomunidad. Tras la comunica-

EK\CV GAO-I-2021-07864

narazpenaren ondoren, udalerria bereizita dagoela ulertuko da, eta bi erakundeen arteko harreman ekonomikoak likidatuko dira, prozedura honen arabera:

a) Mankomunitatearen eta udalerriaren arteko egoera ekonomikoa erregularizatuko da. Mankomunitateak lortu dituen dirulaguntzak eta diru-sarrera finalistak kendu egingo dira, hala badagokio, banatzen den erakundeari dagokion gerakinetik.

b) Banandutako udalerriak ordainduko ditu banantzearen ondorioz sortzen diren gastuak, bai eta mankomunitateak bere kargura hartutako pasiboaren zatia ere. Batzar Nagusiak likidazio-kontua onartu beharko du, boto haztatuen 2/3ko gehiengo kualifikatuak hartutako erabakiaren bidez.

c) Likidazio-proposamenak eta banantze-baldintzek, bai eta estatutuak aldatzekoak ere, honako arau hauek bete beharko dituzte:

— Batzar Nagusiak onartzea, haztatutako botoen 2/3en gehiengo kualifikatuak hartutako erabakiaren bidez.

— Erabakiaren berri jendaurrean jartzea hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta udal mankomunatuetako iragarki-oholetan jarrita. Izapide hori egin ondoren, Foru Aldundiak epe berean txostena egin beharko du, eta epe hori igaro eta txostenik eman ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

— Udal mankomunatuen gehiengoak berrestea, mankomunitatea eratzeko eskatzen den quoruma duen osoko bilkurak hartutako erabakiaren bidez.

— Estatutuen aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

d) Kide bat kargutik kenduko da Mankomunitatearen martxa normala oztopatu gabe.

*25. artikulua. Mankomunitatea desegitea.*

Mankomunitatea desegiteko arrazoiak honako hauek izango dira:

a) Ezarritako helburuak betetzea ezinezkoa izatea.

b) Kide guztiak banantzea, bat izan ezik.

c) Lege-xedapena edo interes publikoaren aurkako inguruabarrak.

d) Estatutu hauetako 10. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako boto haztatuen 2/3ko gehiengo kualifikatuaren akordioa.

2. Aurreko arrazoiengatik Mankomunitatea desegiteko, 27. artikuluan estatutuak aldatzeko ezarritako prozedura-arauak bete behar dira.

*26. artikulua. Likidazio-prozedura.*

1. Mankomunitatea deseginez gero, izaera juridikoari eutsiko dio, likidazio-organo gisa, harik eta Batzar Nagusiak bere ondarea likidatu eta banatzeko erabakia hartu arte.

2. Honako hau izango da jarraitu beharreko prozedura:

a) Batzar Nagusiak formalki erabakiko du desegitea, eta likidatzeko batzorde bat izendatuko du.

b) Batzorde horrek Mankomunitatearen ondasun eta eskubideen inbentarioa egingo du, baliabideak, kargak eta zorrak adieraziz, eta Mankomunitatearen zerbitzura dauden langileak zerrendatuko ditu. Egin beharreko banaketan, Mankomunitateko kideak egon diren denboran izandako Finantzaketarako Foru Funtsaren batezbestekoa hartuko da kontuan, azken bost urteetakoa, bai eta kide diren udalerriek egindako ekarpenak ere.

ción se estimará separado el municipio y se procederá a liquidar las relaciones económicas entre ambas entidades con arreglo al siguiente procedimiento:

a) Se regularizará la situación económica entre la Mancomunidad y el municipio. Las subvenciones y cuantos ingresos de naturaleza finalista se hubieran obtenido por la Mancomunidad serán deducidas del remanente que, en su caso, correspondiera al ente que se separa.

b) El municipio que se separa abonará los gastos que se originen con motivo de la separación, así como la parte del pasivo contraído por la Mancomunidad de su cargo. Se requerirá la aprobación de la cuenta de liquidación por la Asamblea General, mediante acuerdo adoptado por la mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados.

c) La propuesta de liquidación y condiciones de separación, así como la de la correspondiente modificación de estatutos, requerirá el cumplimiento de las siguientes reglas:

— Aprobación por la Asamblea General mediante acuerdo adoptado por la mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados.

— Información pública del acuerdo por plazo de un mes mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y exposición en los tablones de anuncios de los Ayuntamientos mancomunados. Tras dicho trámite, sometimiento a informe de la Diputación Foral por idéntico plazo, transcurrido el cual, sin haberse emitido, se entenderá favorable.

— Ratificación por la mayoría de los Ayuntamientos mancomunados mediante acuerdo plenario adoptado con el quórum exigido para la constitución de la mancomunidad.

— Publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del texto de la modificación estatutaria.

d) La separación de alguno de los miembros se llevará a cabo sin perturbar la marcha normal de la Mancomunidad.

*Artículo 25. Disolución de la Mancomunidad.*

Las causas de disolución de la Mancomunidad serán las siguientes:

a) Imposibilidad del cumplimiento de los fines establecidos.

b) Separación de todos menos uno de los miembros.

c) Disposición legal o concurrencia de circunstancias contrarias al interés público.

d) Acuerdo de la mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados, establecida en el artículo 10, apartado 2, de los presentes estatutos.

2. Para la disolución de la Mancomunidad por las causas anteriores se deben cumplir las reglas procedimentales establecidas para la modificación de estatutos en el artículo 27.

*Artículo 26. Procedimiento de liquidación.*

1. En el caso de disolución de la Mancomunidad, ésta mantendrá su personalidad jurídica como órgano de liquidación hasta que la Asamblea General adopte el acuerdo de liquidación y distribución de su patrimonio.

2. El procedimiento a seguir será el siguiente:

a) La Asamblea General acordará formalmente la disolución y nombrará una comisión liquidadora.

b) Dicha Comisión efectuará un inventario de los bienes y derechos de la Mancomunidad, señalando sus recursos, cargas y débitos, y enumerará al personal al servicio de la Mancomunidad. En la distribución que corresponda hacer se tomará en consideración del Fondo Foral de Financiación medio durante la permanencia de los miembros de la Mancomunidad, durante los últimos cinco años y las aportaciones realizadas por los municipios integrantes.

EK\CV GAO-I-2021-07864

c) Inbentarioa egin ondoren, Likidazio Batzordeak Batzar Nagusiari proposatuko dio ondasunak, eskubideak eta zorrak, Mankomunitatearen langileak barne, udalerri horien artean banatzea eta integratzea. Horretarako, jarduera-egutegi bat zehaztuko du.

d) Likidazio-proposamena egiteko, Batzar Nagusiak aldeko botoa eman beharko du, haztatutako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuaren bidez.

e) Likidazio-proposamenaren jendaurreko informazioaren izapidea bermatuko da, 27.c artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Mankomunitateko kide diren udalen gehiengoak onartu beharko du proposamen hori, osoko bilkurak kideen legezko gehiengo osoarekin hartutako erabakiaren bidez.

g) Likidazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

VII. KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

*27. artikulua. Estatutuak aldatzea.*

Estatutuen aldaketa prozedura honen araberakoa izango da:

a) Ekimena Lehendakaritzari edo gutxienez Batzar Nagusiaren boto haztatuen heren bati dagokio.

b) Batzar Nagusiak onartzea, estatutu hauetako 10. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako gehiengo kualifikatuak hartutako erabakiaren bidez.

c) Erabakia jendaurrean jarriko da hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta udal kideetako iragarki-oholetan jarrita. Horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutuen aldaketari buruzko txostena egingo du epe berean. Epe hori igaro eta Aldundiak txostenik egin ez badu, aldekoa dela ulertuko da.

d) Mankomunitateko udalen gehiengoak onartzea, udalbatzetako kideen legezko gehiengo osoarekin hartutako erabakiaren bidez.

e) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean estatutuen testu osoa eta aldaketak argitaratzea.

*Lehenengo xedapen iragankorra.*

Gizarte-Zerbitzuen esparruko zerbitzuak ematerakoan edozein bikoiztasun saihesteko xedez, Mankomunitatea ez da eremu horretan jarduten eta jarduerak garatzen hasiko, udalerri bakoitzarekin dagokion hitzarmena sinatzen ez den bitartean. Hitzarmen horretan, Mankomunitateak bere gain hartu beharreko zerbitzu zehatzak eta bere gain hartzeko baldintzak zehaztuko dira (data, giza baliabideen eta baliabide materialen atxikipena, etab.).

*Bigarren xedapen iragankorra.*

1. Estatutu hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, Mankomunitateko Batzorde Sustatzaileko Lehendakariak Batzar Nagusia eratzeko bilerarako deia egingo du. Batzar horretan mankomunitateko udalerri guztiek izango dute ordezkaritza. Deialdi honetan, bilkura gehienez ere hamar eguneko epean egitea jasoko da.

2. Bilkura hau egiteko, udalak eratzeko arau berberak bete beharko dira, estatutu hauetako 8. artikuluan xedatuta ez dagoen guztian.

3. Mankomunitateko Lehendakaria hautatzeak Batzorde Sustatzailea desegitea ekarriko du.

c) Realizado el inventario, la Comisión liquidadora propondrá a la Asamblea General la distribución e integración de los bienes, derechos y débitos, incluido el personal al servicio de la Mancomunidad, entre los municipios integrantes. A tal efecto, determinará un calendario de actuaciones.

d) La propuesta de liquidación requerirá el voto favorable de la Asamblea General, adoptado por la mayoría cualificada de 2/3 partes de los votos ponderados.

e) Se garantizará el trámite de información pública de la propuesta de liquidación en los términos establecidos en el artículo 27.c.

f) La mayoría de los ayuntamientos mancomunados habrá de aprobar dicha propuesta mediante acuerdo plenario adoptado con la mayoría absoluta legal de miembros.

g) La liquidación se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

CAPÍTULO VII

MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS

*Artículo 27. Modificación de los Estatutos.*

La modificación de los Estatutos se ajustará al siguiente procedimiento:

a) La iniciativa corresponderá a la Presidencia o al menos a una tercera parte de los votos ponderados de la Asamblea General.

b) Aprobación por la Asamblea General mediante acuerdo adoptado por la mayoría cualificada establecida en el artículo 10, apartado 2, de estos Estatutos.

c) Información pública del acuerdo por plazo de un mes mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y exposición en los tablones de anuncios de los ayuntamientos integrantes, tras la cual la modificación de los estatutos será sometida a informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa por idéntico plazo. Transcurrido dicho plazo sin haberse emitido informe por la Diputación se entenderá favorable.

d) Aprobación por la mayoría de los ayuntamientos mancomunados mediante acuerdo plenario adoptado con la mayoría absoluta legal de miembros de las respectivas corporaciones.

e) Publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del texto íntegro de los estatutos con sus modificaciones.

*Disposición transitoria primera.*

Al objeto de evitar cualquier duplicidad en la prestación de servicios en el ámbito de servicios sociales, la Mancomunidad no comenzará a operar y desarrollar sus actividades en ese ámbito en tanto no se firme el correspondiente convenio con cada municipio en el que se definirán los servicios concretos a asumir por la Mancomunidad tras la delegación del municipio y las condiciones de asunción (fecha, adscripción de medios humanos y materiales, etcétera).

*Disposición transitoria segunda.*

1. En el plazo de un mes desde la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de los presentes Estatutos, la Presidencia de la Comisión Promotora de la Mancomunidad convocará la sesión constitutiva de la Asamblea General en el que estará representados todos los municipios mancomunados. Esta convocatoria contemplará la celebración de la sesión en un plazo no superior a diez días.

2. Para la celebración de esta sesión regirán, en lo no dispuesto en el artículo 8 de los presentes Estatutos, las mismas normas que para la constitución de los ayuntamientos.

3. La elección de la Presidencia de la Mancomunidad determinará la disolución de la Comisión Promotora.

EK\CV GAO-I-2021-07864

*Hirugarren xedapen iragankorra.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 8. artikuluan aurreikusitako baldintzetan egingo den lehenengo eratzebatzar orokorrerako, eta Batzar Nagusiaren gainerako bilkuretarako, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren banaketa berria argitaratu eta boto-ehuneko berriak zehaztu arte, eskualdea osatzen duten udalerrien botoaren balioa honako hau izango da, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 15eko bileran hartutako akordioaren III. eranskinaren arabera:

*Disposición transitoria tercera*

Para la primera Asamblea General constitutiva, que se celebrará en los términos previstos en el artículo 8 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y para las restantes sesiones de la Asamblea General hasta que se publique la nueva distribución del Fondo Foral de Financiación Municipal y se determinen los nuevos porcentajes de voto, el valor del voto de los municipios integrantes de la comarca será el siguiente, de conformidad con el Anexo III. del acuerdo adoptado con fecha de 15 de febrero de 2021 por el Consejo de Diputados.

| *Udalak* | *Ordezkaritza (%)* | *Ordezkaritzari esleitutako botoak* | |
|---|---|---|---|
| | | *N.º 1* | *N.º 2* |
| Andoaingo Udala | 20,22 | 10,11 | 10,11 |
| Astigarragako Udala | 9,04 | 4,52 | 4,52 |
| Hernaniko Udala | 28,21 | 14,11 | 14,10 |
| Lasarte-Oriako Udala | 25,36 | 12,68 | 12,68 |
| Urnietako Udala | 8,61 | 4,31 | 4,30 |
| Usurbilgo Udala | 8,56 | 4,28 | 4,28 |
| TOTAL | 100,00 | | |

| *Ayuntamientos* | *Representación de la entidad (%)* | *Votos atribuidos a la representación* | |
|---|---|---|---|
| | | *n.º 1* | *n.º 2* |
| Ayuntamiento de Andoain | 20,22 | 10,11 | 10,11 |
| Ayuntamiento de Astigarraga | 09,04 | 4,52 | 4,52 |
| Ayuntamiento de Hernani | 28,21 | 14,11 | 14,10 |
| Ayuntamiento de Lasarte-Oria | 25,36 | 12,68 | 12,68 |
| Ayuntamiento de Urnieta | 8,61 | 4,31 | 4,30 |
| Ayuntamiento de Usurbil | 8,56 | 4,28 | 4,28 |
| TOTAL | 100,00 | | |

*Xedapen gehigarria.*

1. Hernaniko Udalak ordezkatuko du Hernaniko udalerria Mankomunitatean, eta Ereñotzuko Toki-Erakunde Txikiari zuzenean eragiten dioten Mankomunitatearen erabaki guztien berri emango dio.

2. Mankomunitateak hitzarmenak egin ahal izango ditu Ereñotzuko Toki-Erakunde Txikiarekin haren eskumeneko zerbitzuei dagokienez, Hernaniko Udalak Mankomunitateko zerbitzu horietan parte hartzen ez duenean.

*Azken xedapenetatik lehena.*

1. Estatutu hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, legez ezarritako moduan izapidetu ondoren.

2. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko dira, Gipuzkoako Toki Erakundeen Foru Erregistroan inskriba daitezen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Estatukoari behar diren jakinarazpenak egin diezazkieten.

*Azken xedapenetatik bigarrena.*

Batzar Nagusiak Barne-Araubideari buruzko Erregelamendu bat onartu ahal izango du estatutu hauek garatzeko, baina erregelamendu horrek ez ditu, inola ere, estatutu horietan jasotako aginduak aldatuko.

*Disposición adicional.*

1. El Ayuntamiento de Hernani será quien represente al municipio de Hernani en la Mancomunidad e informará a la Entidad Local Menor de Ereñotzu de todos los acuerdos de la Mancomunidad que afecten directamente a la misma.

2. La Mancomunidad podrá establecer convenios con la Entidad Local Menor de Ereñotzu con relación a servicios de competencia de ésta cuando el Ayuntamiento de Hernani no participe en tales servicios de la Mancomunidad.

*Disposición final primera.*

1. Los presentes Estatutos entrarán en vigor al día siguiente de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, tras haberse tramitado en legal forma.

2. Asimismo, se remitirán a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su inscripción en el Registro Foral de Entidades Locales de Gipuzkoa y realización de las comunicaciones oportunas a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la del Estado.

*Disposición final segunda.*

La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de Régimen Interior, como desarrollo de los presentes Estatutos, que no alterará, en ningún caso, las prescripciones contenidas en los mismos.

EK\CV GAO-I-2021-07864